

Edari azukredunak, milaka heriotza goiztiarren eragile



PERTSONA ASKOK ohitura dute edari azukredunak maiz hartzeko, eta udan gainera areagotu egiten da kontsumoa. Baina kontsumo horrek ondorio larriak izan ditzake, AEBetako Kardiologi Elkartearen *Circulation* aldizkarian argitaratutakoaren arabera.

30 urtean bildutako ia 600.000 pertsonaren datuak aztertu eta gero, azterketaren egileek ondorioztatu dute munduan 184.000 pertsona edari azukredunen eraginez hiltzen direla urtero, horietatik 134.000 diabetesak jota, 45.000 patologia baskularrengatik, eta 6.450 minbiziak direla eta.

Edari mota horrengatik hilkortasun tasarik handienak Mexikon eta AEBetan neurtu dituzte. Lehenean, 405 hildako milioi bat biztanleko; bigarrenean, 125.

Heriotzen %76 herrialde txiroetan eta garapen bidean daudenetan gertatu dira, eta gaixo gehiago dago gazteen artean adinduen artean baino. ■

Zer ikusteko gai dira ume jaioberriak?

UPPSALAKO (Suedia) Unibertsitateko zenbait ikerlarik egindako azterketak lortutako emaitzak ume jaioberrien ikusmenaz zeuden susmoak baieztatu ditu. Bizpahiru eguneko umeek ez dute ikusten beraiengandik 60 zentimetro baino urrunago egiten dugun ezer, baina distantzia horretatik behera gauzak aldatu egiten dira.

30 zentimetrora, umeek ongi xamar bereizten dituzte aurpegi-adierazpenak, baina ez aurpegia bera. Hau da, aurpegiko organoen mugimendua identifikatzen dute batik bat. Hala ere, ikerlarien arabera gauza bat da ikusmena eta beste bat ikusten dena interpretatu edo ulertzea. Azken horri buruz ez dute ezer frogatzerik izan. ■



Min kronikoak mekanismo desberdinak ditu ar eta emeengan

Nature Neuroscience aldizkarian argitaratu dute ikerketa. Saguekin egindako esperimentuan, ikertzaileek min kronikoa eta hantura eragin zieten, atzeko hanken hiru nerbio ziatikoetik bi kaltetuz. Zazpi egun geroago, mikroglia izeneko zelulak blokeatzen dituen botika bat eman zieten, eta ohartu ziren arrei mina arintzen ziela, baina emeei ez zitzaizela gauza bera gertatzen.

ttiki.com/340462
(Euskaraz)

Poligamiaren eta arazo kardiobaskularren arteko lotura

Saudi Arabiako Faisal Erregea zentro teknologikoan poligamiak gizonengan duen eragina aztertu dute. Behatu dutenez, korrelazioa dago zenbat eta emazte gehiago izatearen eta osasun arazoak izateko arriskua- ren artean.

ttiki.com/340463
(Gaztelaniaz)

Txad lakua, handiena izatetik ia desagertzera

Orain 6.000 urte, Txad, Kamerun, Niger eta Nigeriaren artean zegoen Mega-Txad lakuak 360.000 kilometro koadro zituen; une honetan, Txad lakuaren tamaina 500 eta 1.500 artekoa baino ez da. Haren inguruan hogeit hamar milioi lagun bizi dira gaur egun, baina badirudi basamortua nagusituko dela.

ttiki.com/340464
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16